

Gure energia, gure ingurukoentzat **Energía por y para las personas**

Akta/Kronika

1. fasea. Parte hartzeko 1. tailerra.

Uharteko Kultur Etxea [23/03/01]

1. Deskribapena

1. Oinarritzko informazioa.

Data: asteazkena, 2023ko martxoaren 1a.

Saioaren iraupena: 2 ordu

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Lekua: Uharteko Kultur Etxea.

Parte-hartzaileak: Uharteko herritarrak. Udalerriko sare instituzional, sozial eta ekonomikoko eragile eta erakundeak.

Parte-hartzaile kopurua:

- Guztira: 109 parte-hartzaile.
- Sexuaren/generoaren arabera banaketa:
 - Emakumeak: 34.
 - Gizonak: 57.
 - Ez-bitarra: 1.
 - Ez dakigu: 17.

Parte-hartzaileen banaketa adinaren arabera:

- > 15 urte: 0 aldiz.
- 15-19 urte: 0 aldiz.
- 20-29 urte: 1 aldiz.
- 30-39 urte: 6 aldiz.
- 40-49 urte: 31 aldiz.
- 50-59 urte: 27 aldiz.
- 60- 69 urte: 19 aldiz.
- 70-79 urte: 8.
- 80->: 0.
- Ezezaguna: 17.

2. Deskribapena.

Saioaren helburuak honakoak ziren :

- Parte hartzeko prozesua abian jartzea bultzatzea.
- “Energía por y para las personas/Gure energia, gure ingurukoentzat” aurkeztea.
- Energia Berriztagarrien Komunitatea (EBK) zer den eta zer aukera eskaintzen dituen jakitea, galderak eta iritziak jasotzea eta zalantzak argitzea, ondorengo parte-hartze prozesua errazteko.
- Uhartan Energia Berriztagarrien Komunitate (EBK) bat sortzearen inguruko beharrak eta lehen eskaerak identifikatzea.

Diru-

2.

Garapena

1. Saioaren edukiak:

Parte hartze tailerra bi orduz egin zen. Goiener eta Nommad kooperatibetako taldeek eman zuten. Tailerra lau puntutan banatu zen:

- Saioaren hasiera.
- Prozesuaren aurkezpena eta EBK.
- Zalantzak eta galderak jasotzea eta erantzutea.
- Saioaren amaiera.



Argazkia: Parte hartzeko lehen tailerra. Saioaren hasiera.

2. Saioaren hasiera:

Parte-hartzaileak Uharteko Kultur Etxeko ekitaldi-aretoa iritsi zirenean hasi zen jardunaldia. Espero baino jende gehiago agertu zen (109 pertsona), eta saioaren dinamika espaziora eta parte-hartzaile kopurura egokitu behar izan zen.

Isabel Etxeberria Partaidetza-zinegotziak ongietorria egin zuen eta Uharten Energia Berriztagarrien Komunitate (EBK) bat eratzekeo prozesu parte-hartzailea eta eratzailea aurkeztu, Udalak bultzatua.

Nommad-eko taldeak parte hartzeko tailerra garatzeko dinamika azaldu zuen. Bertaratutakoen laguntza ere eskatu zuen, jende asko bertaratu baitzen bilerara. Parte-hartzaileen artean lehen txanda bat egin zen, eskua jaso, bilerara zer roletan zetozen azalduz (erakundeei dagokienez, Udaleko 3 pertsona joan ziren; enpresa-saretik tokiko enpresa bat; eta auzotar gisa gainerako parte-hartzaileak). EBK bati buruzko ezagutzari dagokienez (pertsona batek adierazi zuen ezagutza handia zuela; 12 lagunek ezagutza ertaina; eta gainerako parte-hartzaileek ezer gutxi edo batere ez).

3. Prozesuaren eta EBKren aurkezpena.

Lan-tarte horretan, prozesuaren partaidetza-markoa azaldu zen: helburuak, erakunde-esparrua, prozesuaren faseak eta 1. faseko saioak. Ondoren, azaldu zen zer den EBK bat, zer helburu dituen, zer arau bete behar dituen, zer aukera eskaini, zer berezitasun dituen, zer proiektu-mota eta zerbitzu eman ditzakeen... etab.

Aurkezpena ikusteko esteka: [hemen](#).



Argazkia: Parte hartzeko lehen tailerra. EBKren aurkezpena.

4. Galdera eta erantzunen jasotzea.

Bigarren lan-tartean, parte-hartzaileak talde txikitan banatu ziren. Eztabaida-txanda ireki ondoren, EBK bat martxan jartzeko hiru galdera edo zalantza handienak zein diren pentsatzeko eskatu zitzairen bertaratutakoei. Talde bakoitzak hiru galdera aukeratu zituen, eta papertxo txikietan jaso ziren. Talde bakoitzaren galderak, antzekotasunaren arabera multzotan batu ziren.

Jasotako galderak eta zalantzak hamar multzotan sailka daitezke:

Araudia:

- Zer araudi bete behar du EBK batek?
- Europako araudiaren garapen-maila Espainian?
- Zein da Europako Zuzentarauak arautzen dituen Errege Dekretuaren egoera?

Beste esperientzia batzuk:

- Ba al dago martxan beste EBKren bat Uharteren antzeko herriren batean?
- Hurbileko zer esperientzia dira eredugarriak?
- Adibide arrakastatsuak?

Prozesua:

- Zein dira eman beharreko urratsak komunitatea eratzen denetik energia erabiltzen den arte?
- Nolakoa da prozesua hasieratik hasi eta energia modu jasangarrian lortzen den arte?
- Zenbat irauten du, gutxi gorabehera, prozesu eraginkor batek?

Parte-hartzea:

- Elkartea gastronomiko batek edo irabazi asmorik gabeko elkartea batek parte hartu dezake?
- Zenbat pertsona behar dira EBK baterako?
- Zein dira prozesuan parte hartzeko baldintzak?
- Zer parte-hartze behar da EBKren kooperatibako kide izateko? (ekintza, finantziak, bilerak, etab.)

Kudeaketa:

- Nork kudeatzen du EBK? Nola kudeatzen da?
- Nola banatzen da EBK batek sortzen duen energia?

Finantzaketa eta inbertsioak:

- Zenbateko da egin beharreko ekarpen indibiduala edo kolektiboa (finkak)?
- Zein da EBKren kostu ekonomikoa?
- Nondik lor daiteke EBKren inbertsioetarako finantziak?
- Nondik lortuko da EBKren finantziak? Udaletik, bazkideen kuotetatik, beste nonbaitetik?



Argazkia: Parte hartzeko lehen tailerra. Lantaldeak.

- Zenbatekoa da ekarpen ekonomiko partikularra?
- Zer konpromiso sortzen dute erosketek?
- Zenbat denbora behar da, gutxi gorabehera, inbertsioak amortizatzeko?
- Zer deskontu izan dezakegu argiaren tarifyan?
- Nola kudeatzen da soberako energia? Saldu eta etekinak lor daitezke EBKrentzat?
- Zein dira irabaziak edo aurrezpena?
- Nola eragiten dio instalazio batek bizilagunen eta kooperatibisten fakturari?
- Zein da EBKko agente bakoitzaren inplikazio ekonomikoa? Udala, partikularrak, ETEak...
- Zer ekarpen ekonomiko eskatuko digu?

Proiektuak eta azpiegiturak:

- Zer azpiegitura eskaintzen ditu EBKk?
- Ibaia erabil daiteke? Zer aukera eskaintzen ditu?
- Zer instalazio-mota eta non egin nahi dira?
- Partikular batek edo batzuek edo auzo-komunitate batek dagoeneko energia autoprodukziorik badute, parte har dezakete EBKn beren azpiegiturarekin?
- Zer azpiegitura eskaintzen dira? Kargagailuak, bizikleta elektrikoak, eraikinak birgaitzea?
- Zein da EBKren energiaren jatorria? Sortzen dugu? Erosten dugu? Non? Nori?
- Sar naiteke EBKn argindarra sortzen duten plakak (fotovoltaikoak) baditut?
- Merezi du gure eraikinean energia-eraginkortasuneko jarduerak egin arte itxarotea EBK eratu aurretik?
- Zer aukera egongo lirateke Uhartan EBKrentzat? (energia-iturriak eta proiektuak).
- Zer energia-ehuneko lor daiteke energia berriztagarrietatik?
- Autokontsumotik lortzen ez den energia, nola eskuratzen da merkatutik?

Hartzaileak:

- Konponbideak komunitateentzat dira ala herri osoarentzat?
- EBK guztion onurarako da edo eraikin publikoentzat soilik?
- Zer onura dakar bizilagunentzat?
- Zeinentzako da EBK bat? Auzotarren komunitateentzat?

Gobernantza:

- Zer pisu du bazkide bakoitzak parte-hartze prozesuan?
- Zein dira EBKn parte hartzeko baldintzak?
- Zer konpromiso hartzen dira kontuan?

Bestelakoak:

- Zer alde dago EBKren eta autokontsumo energetikoaren artean?

- Zein da Goienerrren zeregina energia-komunitatea sortzeko prozesu horretan? Eta sortu ondoren?



Argazkia: Parte hartzeko lehen tailerra. Galderak jasotzeko panela.

5. Saioaren amaiera:

Azken lan-tartean, parte-hartzaileak berriro banatu ziren aurreko taldeetan, prozesu horretan parte hartu nahi zuten edo ez azaltzeko. Hausnarketa horiek hurrengo parte-hartze tailerrean bateratzekotan geratu ziren.

Alfredo Arruiz Uharteko alkateak eman zion amaiera jardunaldiari, eta eskerrak eman zizkien parte-hartzaileei etortzeagatik eta inplikatzegatik. Esan zuen oso garrantzitsua zela proiektu hori Uharteko herritar zaugarrienengana iristea, eta denak animatu zituen hurrengo saioan parte hartzera:

Data: asteazkena, 2023ko martxoaren 15a.

Ordutegia: 18:00etatik 20:00etara.

Lekua: Uharteko Arte Garaikideko Zentroa (Oharra: kokapen-aldaketa).

3. Emaitzak

1. Hurrengo tailerraren kokapena aldatzea:

Parte-hartzeko interes eta erantzun handia dela eta, hurrengo bi saioak (martxoaren 15ean eta 23an) beste leku batean egingo dira: Uharteko Arte Garaikideko Zentroan.

2. Hurrengo saiorako edukiak:

Parte hartzeko tailerrak piztutako interesa dela eta, Energia Berriztagarrien Komunitatea (EBK) eratzeke beste prozesu batzuen arrakastaren eta porrotaren adibide praktikoak emango dira.

3. Ohiko galderak:

Uharteko EBKren "galderarik ohikoenen" gida egiten ari gara, zuen zalantza guztiei erantzuteko. Hilaren 15eko saioan aurkeztuko dugu.

4. Komunikazio-bideak:

Informaziorako WhatsApp talde bat sortu da (noranzko bakarrekoa da, mezuak bakarrik irakur daitezke). Lehen tailerrean baimena eman ziguten guztiak batu dira talde honetara. WhatsApp taldean sartzeko, sakatu [hemen](#).

Era berean, informazioa helarazteko e-posta talde bat sortu da. Talde horretan sartu dira lehen tailerrean posta elektronikoa eman ziguten pertsona guztiak. Mezu elektronikoen taldean sartzeko, nommad@nommad.coop helbidera idatz dezakezue.



Uharteko Energia Komunitatea eratzeke parte-hartze prozesua
Proceso participativo para la constitución de una Comunidad Energética en Huarte

**GURE ENERGIA,
GURE INGURUKOENTZAT
ENERGÍA POR
Y PARA LAS PERSONAS**

1. FASEA. PRESTAKETA ETA FORMAZIO SAIOAK. Hastera goazi! Animatu eta parte hartu

Martxoaren 14, asteazkena Zer da EBK bat eta zer aukerak eskaintzen ditu? KULTURETXOAN / 18:00h	Martxoaren 15a, asteazkena Zer nolako proiektuak garatzen ahal dira? UHARTETIKO ARTE GARAIKIDEKO ZENTROAN / 18:00h	Martxoaren 29a, asteazkena Nolako da kooperatiben gobernantza-eredua? UHARTETIKO ARTE GARAIKIDEKO ZENTROAN / 18:00h
FASE 1. PREPARACIÓN Y SESIONES FORMATIVAS. Comenzamos... ¿Te animas? 1 de Marzo, miércoles ¿Qué es una CER y qué opciones ofrece? CASA DE LA CULTURA DE HUARTE / 18:00 h.	15 de Marzo, miércoles ¿Qué tipo de proyectos se pueden desarrollar? CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO DE HUARTE / 18:00 h.	29 de Marzo, miércoles ¿Cómo es el modelo de gobernanza de las cooperativas? CENTRO DE ARTE CONTEMPORÁNEO DE HUARTE / 18:00 h.

ANTOLATZALEA / ORGANIZADOR: Uharteko udala Ayto. de Huarte

DIRUGARITZA / COORDINADOR: Gobierno de Navarra, Nafarroako Gobernua

INFORMAZIO GEHIAGO: Uharteko Udalak San Juan plaza 1, PK 31620 Huarte. ayuntamiento@huarter.es +948 33 07 61

MÁS INFORMACIÓN: Ayuntamiento de Huarte / Huarte. Plaza de San Juan, 1, 31620 Huarte / Huarte. ayuntamiento@huarter.es +948 33 07 61